


Euskaltegien Txokoa

Aek Euskaltegia

Zugarramurdira irteera

Ikasturte honetan, urtero bezala, Hernani eta Astigarragako aek-ko ikasle eta irakasle zenbait Euskal Herriko Pirinio aldera joan ginen asteburu pasa. Hain zuzen ere Sara-Zugarramurdi zonaldera. Toki ederra da zeuok ere ezagutu nahi baduzue. / II




ITZIAR SALABERRIA ARREGI, ZILEGI ESKOLETAKO HARTZAILEA ETA EMAILEA:

«Eskularen prozesu osoa euskaraz azaltzen dut, ikasleen ulermen maila kontuan hartuz, eta eskolak haien beharretara egokituz» / III

Azterketak eta hizkuntzaren erabilera / III

Jasota Bezala

IRENE GARCIA.



Zergatik eta zertarako udan euskaltegian? / II

Zugarramurdira irteera

Ikasturte honetan, urtero bezala, Hernani eta Astigarragako AEK-ko zenbait ikasle eta irakasle Euskal Herriko Pirinio aldera joan ginen asteburu pasa. Hain zuzen ere Sara-Zugarramurdi zonaldera. Toki ederra da zeuok ere ezagutu nahi baduzue.

GU lehen-lehenik Sarara joan ginen, goizeko hamarretan Hernanitik irtenda. Bertan ibili ginen Sarako kaleetan barrena, bazkaldu eta arratsalde partean Urdazubiko kobak bisitatu genituen, izugarri kobazulo politak dira benetan! Hemendik irten ginenean Zugarramurdirako bideari ekin genion, bertako alberge eder batean lo egiteko hartu baikenuen tokia. Graxiena izeneko sorgin etxean pasa genuen gaua, eta ba al dakizue nor zen Graxiena? Lurrealde hauetako sorgin nagusia inkisizioaren arabera. Toki magikoa benetan!

Hurrengo egunean, goizean goiz ohetik jaiki eta Zugarramurdiko kobak eta sorginen museoa bisitatu genituen, eta bazkaltzeko ordua heldu zenerako Senperen ginen, bertako lasaitasunean tripak betetzeko asmoz. Eguraldia ere lagun genuen gainera!

Asteburu bikaina

Asteburua airean pasa zitzaigun, eta etxeratzeko ordua gainean genuela, pena apur batekin, baina asteburu eder bat pasa izanaren zantzuarekin egin genuen itzuliko bidea.

Baina gu bertara joateko hautua, ez da soilik bere para-je ederrengatik izan. Izan ere, aurrean 400 urte beteko dira (azaroaren 8an), sorginkeria leporatuta Zugarramurdiko eta Urdazubiko 11 gizon-emakume sutan erre zituztela Logroñoeko plazan, inkisizioaren izenean. Ez ziren ez, inkisizioaren itzalean hil ziren bakarrik izan, baina Europako azken prozesu handia hauxe izan omen zen.

1608. urtean hasi zen eraldia, Pierre de Lancre inkisidore frantziarrak Lapurdin sorginen ehiza hasi zuenaren oihartzunak Zugarramurdira heldu zirenean. Izuaren izuz, Mari Ximildegia eta beste zenbait herritarrek deabrua ikusi izana aitortu zuten, eta Zugarramurdiko apaizak arazo herrian bertan konpondu bazuen ere, Urdazubiko abadeak lau emakumeren aurkako salaketa eraman zuen



Zugarramurdiko kobazulorako sarrera.

Logroñoeko auzitegiraino. Orduan, Errioxako hiriburutik inkisidore talde bat bidali zuten lurrealde hauetara, hauen lana ez zen zaila izan: histeria bizian bizi zen herria, eta sorginak salatzen ez zituztenak eskumikatuak izango zirenen mehatxupean akusazio uholde izugarria hasi zen. Gauzak horrela, 1509rako 300 bat lagun sorginkeriaz akusatutako zeuden, eta hauetatik 31 Logroñoeko espetxean sartu zituzten. Asko aske geratu ziren, baina 11 sutan erreak izan ziren (hauetariko bost lehenagotik kartzelan hil zirelarik).

Bidasoan eta Baztanen zabaldu zen histeria

Honek guztiak ordea, ez zuen barealdirik ekarri, Zugarramurdiko histeria kolektiboa Bidasoan eta Baztanen barre-

na zabaldu zen, eta norberak bere burua salbatu nahirik ondokoa salatzen zuen, (nahiz eta askotan salatari hauek beren bekatuak aitortzean, inkisizioan erori). Salaketak areagotzen joan



Goyaren Akelarrea pintura.

ziren, eta lau urteren buruan (1513) Auzitegi Santuak 5000 akusazio baino gehiago zituen -tartean 1384 haur-, eta egoerak ihes egin zien, ondorioz, 1514an bukatutzat jo behar izan zuten Zugarramurdin hasiriko sorgin ehiza.

Zergatik izan zuen, ordea, inkisizioak halako indarra Euskal Herrian?

Honako galdera honi erantzuteko arrazoiak hiru ataletan bana ditzakegu. Alde batetik Logroñoetik heldutako inkisidore taldeak aurkitutako hainbat zantzu azalduko ditugu: batetik hizkuntza dugu, euskara izan zen lehen faktorea, De Lancrek zioenez «Hizkuntza arraro eta ezezagun batean mintzatzen dira; horixe da lehen seinale txarra»; bestetik, ez zuten ulertzen eus-

“ Faktore geografikoek ere bultzatu zuten Euskal Herria sorginen bizitoki izendatzea: batez ere kobazuloengatik. Zugarramurdin esaterako, bada koba handi bat, Bertakoentzat batzar edo ospakizunetarako topaleku zen”

kaldunon «izpiritu aristokrati-koa» etxerik xumeenean ere azaltzea; ulertezina zitzaien herriko abadea pilotan edo dantzan ikustea; baina batez ere emakumeak zituzten jomugan: batetik elizkizunetan zuten parte hartzea eta apaizekin zuten harremana gehiezkoa iruditzen zitzaielako, baina batez ere arrisksua iruditzen zitzaielako gizonak ternuan ziren bitartean herria emakumez beterik uztea, ze emakumeak gizonik gabe, ohi-tura onak galdu, arintasunean erori eta Satanas besarkatzen omen zuten. Baina ez hau bakarrik, emakumeek eguna sagarra jaten pasatzen omen zuten, jainkoaren kondanaren gainetik.

Euskal Herria sorginen bizitoki

Bestalde faktore geografikoek ere bultzatu zuten Euskal Herria sorginen bizitoki izendatzea: batez ere kobazuloengatik. Zugarramurdin esaterako, bada koba handi bat, Infernukoerreka deituriko erreka zeharkatzen duena. Bertakoentzat batzar edo ospakizunetarako topaleku zen, baina eliza sartu zenean kultu satanikoak egiteko tenplua zela esan zuen, eta zenbait epaituren babesleku izan zela ere bai.

Azkenik, faktore politikoak aurki ditzakegu, izan ere garai hartan Urdazubi eta Zugarramurdi San Salvador monasterioaren menpe zeuden, eta antza zenbait herritarrek ez zizkien zergak ordaindu nahi izaten. Ez da zaila hauek nola intimidatzen zituzten jakitea ezta? Sorginkeriarren mehatxupean noski!

Itziar Salaberria Arregik (Lezo, 1977) betidanik izan du artisau sena. Altzarien zaharberritze, tapizeria eta marketeria ikasketak bukatu eta tailerra ireki zuen Hernanin bere laguna den Nerea Bergararekin. Egun, altzarien

zaharberritze eta tapizeria eskolak ematen ditu Oreretako Xenpelar zentroan eta 2009-2010 ikasturtean AEKn ibili da DKP (decoupage) eta krakelatu teknikak erakusten. Berarekin solasean ibili gara Zilegi Eskolaren aitzakian.

ITZIAR SALABERRIA ARREGI, Zilegi Eskoletako hartzailea eta emaila:

«Eskularen prozesu osoa euskaraz azaltzen dut, ikasleen ulermen maila kontuan hartuz, eta eskolak haien beharretara egokituz»

Zer da Zilegi Eskola?

Euskaraz bizi nahi duen edozein pertsonak eman edota jaso ditzakeen eskolak dira. Arlo ezberdinetako eskolak dira eta era desberdinetako gai-emailak eman dituzte eskola hauek.

Besteei erakusteko zerbaite duen pertsona izan daiteke gai-emaila, AEK-ko ikasle zein herritar. Denontzat dago lekua Zilegi Eskolan.

Zein Zilegi Eskolan parte hartu duzu?

Zilegi Eskolako bi aldetan ibilia naiz; hartzaile eta emaila moduan.

Batetik, hartzaile moduan, sukaldaritza belarjale eskolan parte hartu nuen. Bertan, produktu ezberdinak erabiliz, garaian garaiko platerak prestatzen ikasi genuen. Hernaniko elkarte ezberdinek euren egoitzak uzten zizkiguten bertan errezetak prestatu

ahal izateko.

Bestetik, 2009-2010 ikasturtean gai-emaila bezala ibili naiz euskaltegian. Eskularen eskolak eman ditut. Giltzak eta pitxiak zintzilikatzeke apaingarriak egin ditugu. Talde bakoitzarekin bizpairu saioetako eskolak izan dira. Apaingarri hauek egiteko DKP (decoupage) eta krakelatu teknikak erabili ditugu eta emaila benetan politak lortu ditugu.

Zein helbururekin ematen dituzu eskolak?

AEK-ko lagunek planteatutako filosofiarri jarraituz, eskularen prozesu osoa euskaraz azalduaz, ikasleei eguneroko bizitzako edozein gauza euskaraz egin dezakegula azaldu nahi nien. Eskolak ematerako garaian, ikasleen ulermen maila kontuan hartu nuen eta eskolak haien beharretara egokitu nituen.

Zer iruditu zaie ikasleei? Zein izan da haien inpresioa?

Bi aldetik baloratu daitekeen gaia da. Batetik, eskulana bera, nik uste dut nahiko kontentua ateratzela.

Eskolei dagokienez, esan nahi dut ikasleek ikusi dutela bai klase hauekin, baita Zilegi Eskola orokorrean hartuta ere, edozein gauza euskaraz egin dezaketela.

Datorren ikasturteari begira, saio berriren bat emateko asmoa duzu?

Ni hartzaile moduan ahal dudan guztietara joaten saiatuko naiz, oso gai interesgarri buruzkoak baitira, eta gainera oso giro polita sortzen da.

Eta emaila bezala ere oso gustora aritu naiz, eta datorren ikasturteari begira badituzte ideia batzuk buruan, eskulana eta objektuen birziklapenaren inguruko saio batzuk.



Itziar Salaberria.



Jasota Bezala

Azterketak eta hizkuntzaren erabilera

Zeinek ez du egin baliogabe-ko ikastaro bat soilik OPE bateko puntuak ematen ditzutelako? Hauxe egin dute euskararekin. Azterketa sistema honekin gehienek ez dute euskara ikasten gero erabiltzeko, puntuak lortzeko baizik.

Euskaltegi batzuetan erakusten ari dira idazlan on bat egiteko formulak, berdin dio zein den gaia, kontua da patroji jakin bat ikasten duzula eta gaiaren arabera hitz

batzuk aldatu egin behar dituzula. Hori al da hizkuntza bat ikastea?

Nik betidanik ikasi dut euskara, Euskal Herrian bizi naizelako eta euskaraz komunikatu nahi dudalako. Geroago etorri zitzaizkidan azterketak egin beharra, azterketarena lan kontuengatik izan zen. Baina orain garbi ikusten dut azterketa hauek ez dutela balio zuk dakizuna erakusteko. Adibidez, zergatik uzten dute bukaerarako

ahozko proba? Ez al da ahozko komunikazioa komunikatzeko modurik garrantzitsua? Zenbatek idazten dute eguneroko bere lanean? Zergatik halako garrantzia idazlan probak? Halako azterketa sistemarekin galtzen ateratzen direnak euskaldun zaharrak eta ni bezalakoak gara, egunero euskara erabiltzen dugunak, baina jendearekin hitz egiteko eta ez auskalo norentzako izango diren idazlanak idazteko.

Garbi daukat ez dela erraza bakoitzak zenbat euskara dakien neurtzea. Askotan pentsatu dut ez dela ideia txarra IVAPeko ikuskatzaile bat zure lantokira joan eta ikusi dezala nork egiten duen euskaraz eta nork ez, neurtu dezala horrela zure hizkuntza maila. Garestia dela sistema hau? Eta lau, bost edo hamar aldiz aurkeztea zure perfila ateratzeko, ez al da garestia?

Nik ez dut frogatu behar

inongo lekuan gaztelera dakidala. Eta frogatu behar badugu gure hizkuntza maila, orduan, bi hizkuntzatan egin beharko genituzke azterketak, ezta? Adibidez, OPEko proba batean 100 galderatik 50 euskaraz eta beste erdia gaztelera, hori izango litzateke elebidun izatea.

Irene Garcia.
Hernaniko


AEK euskaltegiko ikaslea

Zergatik eta zertarako udan euskaltegian?



ANA EZEIZA

Ikasturtean zehar euskaltegian aritu naiz eta bide batez, azterketara aurkeztu naiz. Ni euskaraz bizi naiz; beraz ez dut arazorik ez irakurtzeko, irratia entzuteko, hitz egiteko...baina idazteko!! Hauxe da nire arazoa; ez dut inongo ohiturarik euskaraz idazteko eta horretan saiatu behar dut azterketa gainditu nahi badut. Beraz, uda honetan idazkuntza tailerrean eman-go dut izena eta astean behin bakarrik denez, ez dit denbora askorik eskatzen. Ea txukunago idazten ikasten dudan!!



NOE IBARROLA

2. mailako hizkuntza eskakizuna behar nuen eta autoikaskuntza bidez prestatzen aritu naiz. Azterketa oraintxe egin dut eta lortu dut. Motibatuta nagoenez eta martxa hartuta dudanez, 3.mailako azterketa prestatuko dut. Autoikaskuntza oso ondo egokitzen da nire ordutegi eta beharretara eta oso arina egiten zait euskararekin lanean jarraitzea.



MALU CUESTA

Denbora daramat euskaltegian euskara ikasten eta pausuak eman baditut ere asko kostatzen zait euskaraz hitz egitea. Ez daukat ohiturarik euskaltegitik kanpo euskaraz hitz egiteko, eta gainera ikasturtea ekainean bukatu eta urria arte tarte handia dago. Nik ez badut kalean hitz egiten, euskaltegian badago mintza talde bat euskaraz hitz egiteko eta euskararekin harremana mantentzeko (irakurri, entzun...), eta uztailean eta irailean hitz egiten badut, ez dut asko galduko.